

DEKRETUAREN PROPOSAMENA

AURREKARIAK

I.- Aurrekontu-egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua hilabete horretako aparteko ordainsaria eta berariazko osagarrien ordainsari gehigarria edo horren baliokideak kentzea ezartzen zuen.

Artikulu horren arabera, aparteko ordainsaria eta berariazko osagarrien ordainsari gehigarria edo horren baliokideak diren ordainsariak kentzetik eratorritako kopuruak pentsio-planei edo erretiroaren kontingentziaren estaldura jasotzen duten aseguru kolektiboetako kontratuei ekarpenak egiteko bideratuko ziren etorkizuneko ekitaldietan, Aurrekontuen Egonkortasunerako eta Finantzen Iraunkortasunerako 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoa betez eta dagozkion aurrekontuen Legeetan zehazten diren baldintzekin eta irismenarekin.

II.- Aipatutako Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoa aplikatuta, 2012ko abenduari zegokion aparteko ordainsaria kentzearen ondorioz erosteko ahalmena murriztu egin zitzaion Udaleko langileen baliabide ekonomikoak errazteko helburuarekin, aurrerakinak emateko ezohiko prozedura gaitu da.

III.- (**HALA BADAGOKIO**) (..... Arloko Arduradunaren / Idazkariaren / Kontuhartzailearen) ****aren ****(e)ko txostena ikusita.

Eta ondoko hauetan oinarriturik

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 artikulua, non adierazten baita langileen buruzagitza nagusia eta beste udal organo batzuei berariaz esleitzen ez zaizkien gainerako eskuduntzak alkatearen eskumenekoak direla.

PROPUESTA DE DECRETO

ANTECEDENTES

I.- El artículo 2 del Real Decreto-Ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, establecía la supresión tanto de la paga extraordinaria como de la paga adicional de complemento específico o pagas adicionales equivalentes de dicho mes.

Asimismo señalaba que las cantidades derivadas de la supresión de la paga extraordinaria y de las pagas adicionales de complemento específico o pagas adicionales equivalentes se destinarían en ejercicios futuros a realizar aportaciones a planes de pensiones o contratos de seguro colectivo que incluyan la cobertura de la contingencia de jubilación, con sujeción a lo establecido en la Ley Orgánica 2/2012, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y en los términos y con el alcance que se determine en las correspondientes Leyes de presupuestos.

II.- Con el objetivo de facilitar la disponibilidad económica de las trabajadoras y trabajadores del Ayuntamiento de, que vieron minorado su poder adquisitivo con la supresión de la paga extraordinaria correspondiente al mes de diciembre de 2012, como consecuencia de la aplicación de lo dispuesto en el artículo 2 del mencionado Real Decreto-Ley, se procede a habilitar un procedimiento extraordinario de concesión de anticipos.

III.- (**EN SU CASO**) Visto el informe de fecha ****de **** del (Secretario / Interventor/ Responsable del Área de).

Y sobre la base de los siguientes

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- Artículo 21.1 de la Ley 7/1985 de Bases del Régimen Local, de 2 de abril, donde se determina la jefatura superior del personal como competencia del Alcalde, así como el resto de atribuciones no asignadas de manera expresa a otros órganos municipales.

BIGARRENA.- Toki Erregimeneko Arloan Indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bateginari buruzko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 24. artikulua.

HIRUGARRENA.- (udal erregulazio zehatza izanez gero) Udal Araudi Organikoko artikulua.

LAUGARRENA.- Modu osagarrian, hala badagokio, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legea eta abenduaren 16ko 2608/29 ELD.

Eta indarreko legediak ematen dizkidan eskuduntzak erabilita

SEGUNDO.- Artículo 24 del R.D.Leg. 781/1986 Texto Refundido De Las Disposiciones Legales Vigentes en Materia de Régimen Local.

TERCERO.- (en caso de disponer de regulación específica municipal) Artículo del Reglamento Orgánico Municipal.

CUARTO.- Con carácter supletorio, en su caso, la Ley 7/2007 de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, así como el RDL 2608/29, de 16 de diciembre.

Y en virtud de las atribuciones que me confiere la legalidad vigente

HONAKOA EBATZI DUT

Lehenengoa.- 2014ko ekaineko aparteko ordainsariari dagozkion nominaren aurrerakinak eskuratzeko eta ahalbidetzeko prozedura onartzea, ondorengo baldintzen arabera:

1.- Aurrerakina karrerako funtzionarioei, lan-kontratadun langileei eta aipatutako aparteko ordainsariaren sortzapena suposatzen duen zehaztutako amaiera data duen kontratu edo izendapena daukaten bitarteko eta aldi baterako langileei eman ahal izango zaie.

2.- Aurrerakinaren zenbatekoa ...en baliokidea izango da.

Oharra: instituzio bakoitzak bere egoerara eta ordainsarien egiturara ondoen egokitzen den zenbatekoa aukeratuko luke. Modu argigarrian, eta instituzio bakoitzak har ditzakeen beste alternatiba batzuei kalterik egin gabe:

- a) 2013ko ekainari dagokion aparteko ordainsariaren osagarri zehatzaren, soldatuko ordainsarien eta lanpostu-mailako osagarrien batura.
- b) Titulazio-multzoaren araberako zenbateko finkoa.
- c) Ordainsari mailaren araberako zenbateko finkoa.
- d) 2014ko ekaineko ordainsariari dagokion simulazioaren zenbateko garbia.
- e) (...)

RESUELVO

Primero.- Aprobar el procedimiento para facilitar y posibilitar los anticipos de nómina correspondiente de paga extraordinaria del mes de junio de 2014 de acuerdo con las siguientes condiciones:

1º.- El anticipo podrá ser realizado al funcionario de carrera, contratados laborales, personal interino y eventual que tenga un contrato o nombramiento con una fecha de finalización determinada que suponga el devengo de la citada paga extraordinaria.

2º.- El importe del anticipo será el equivalente a

Nota: Cada Institución elegiría el importe que mejor se acomode a su situación y estructura retributiva. A título ilustrativo, y sin perjuicio de otras alternativas que cada Institución pueda considerar:

- a) La suma de los conceptos retributivos de sueldo, complemento de destino y complemento específico de la paga extraordinaria correspondiente al mes de junio de 2013.
- b) Cantidad fija por grupo de titulación.
- c) Cantidad fija por nivel retributivo.
- d) El importe neto de la simulación correspondiente a la paga de junio de 2014.
- e) (...)

3.- 2014ko ekaineko aparteko ordainsariari dagokion aurrerakina jaso nahi duten udal langileek 2013ko abenduaren ... (a) baino lehen egin beharko dute dagokion eskaera (udal bakoitzak aukeratuko du hartzailea: alkateari, idazkariari, Nominen Sailari, Langile Sailari...), Dekretu honen I. Eranskin gisa gehitu den eskabideari jarraituz.

Aurrerakina ematearen erabakia Alkatetzaren Dekretu bidez ebatziko da.

4.- Ematen den aurrerakinak ez du inolako interesik sortuko eta 2014ko ekainean itzuli beharko da ofizioz, hilabete horretako aparteko ordainsariaren sortzapenarekin batera, edo, aipatutako aparteko ordainsariaren kargurako itzulketa/konpentsazioa egiterik ez balego, ekaineko edo beste edozein hilabetetako nominaren kargura egingo litzateke, hala badagokio.

5.- Aurrerakina ematen bada eta langilearekiko lan-harremana itzulketarako aurreikusitako data baino lehen eteten bada, jasotzeke dauden ordainsarietan itzuli ahal izango da ofizioz, konpentsazio bidez. Sistema hau egitea ez balitz posible izango edo nahikoa izango ez balitz, langileak udal diru-kutxan sartu beharko luke eman gabeko zenbatekoa, eta antolamendu juridikoan aurreikusitako edozein bidetatik eskatu ahal izango litzateke zenbateko hori.

Bigarrena.- Honako ebazpena udal langileei, Nominen Sailari eta Kontu-hartzailetzari JAKINARAZTEA, dagozkion ondoretarako.

3º.- Los empleados y empleadas municipales que deseen percibir el anticipo correspondiente a la paga extraordinaria del mes de junio de 2014, deberán cursar la correspondiente solicitud al (Cada Ayuntamiento elegirá el destinatario: Alcalde, Secretario, Departamento de Nómina, Área de Personal...), antes del día de diciembre de 2013, de conformidad con el modelo de solicitud que se incorpora como Anexo I a este Decreto.

La concesión del anticipo se resolverá mediante Decreto de Alcaldía.

4º.- El anticipo que se conceda no devengará interés alguno y será reintegrado, de oficio, mediante su compensación, en el mes de junio de 2014, con el devengo de la paga extraordinaria de dicho mes o, en caso de no ser posible su reintegro/compensación con cargo a dicha paga extraordinaria, lo será con cargo a la nómina del mes de junio o cualquier otra mensualidad, si así fuera necesario.

5º.- En el caso de que se conceda un anticipo y se extinga la relación laboral con el/la empleado/a antes de la fecha prevista de reintegro, se podrá, de oficio, imputar el reintegro a retribuciones pendientes de percibir, mediante su compensación. En el caso de que este sistema no fuera posible, o fuera insuficiente, el empleado/a deberá ingresar el importe pendiente en las arcas municipales, pudiendo exigirse el mismo por cualquiera de las vías previstas en el ordenamiento jurídico.

Segundo.- NOTIFICAR la presente resolución a las empleadas y empleados municipales, al Departamento de Nóminas y a la Intervención municipal, a los efectos oportunos.

I. ERANSKINA: AURRERAKINA ESKATZEKO EREDUA

ANEXO I: MODELO DE SOLICITUD DE ANTICIPO

2014ko EKAINeko APARTEKO ORDAINSARIAREN KARGURAKO
AURRERAKINAREN ESKAERA

SOLICITUD DE ANTICIPO CON CARGO A LA PAGA EXTRAORDINARIA DEL MES
DE JUNIO 2014

LANGILEA / TRABAJADOR/A		
Izen-abizenak Nombre y apellidos		NAN DNI
Helbidea Dirección		
PK C.P.	Udalerrria Municipio	

....(e)ko Udaleko alkatearen ***** (e)ko data duen ****. zenbakiko Dekretuan xedatutakoaren jakinaren gainean egonda, eta bertan araututako baldintzak, betebeharrak eta eskubideak bere gain hartuta, HAUXE ESKATZEN DU: 2014ko ekaineko aparteko ordainsariaren kargurako aurrerakina eman diezaiotela, lehen aipatutako Dekretuan araututakoa, zenbakiko Alkatetzaren Dekretuko 2. artikulua adierazten duen zenbatekoan.	Teniendo conocimiento de lo dispuesto en el Decreto número ****, del Alcalde/sa del Ayuntamiento de, de fecha de, y asumiendo las condiciones, obligaciones y derechos en el regulados, SOLICITA: Le sea concedido el anticipo extraordinario con cargo a la paga extraordinaria de junio de 2014, regulado en el Decreto anteriormente reseñado, por el importe resultante del artículo 2 del Decreto de Alcaldía nº
---	---

_____ (e)n

Sinadura / Firma